

## Euskadi Ta Askatasunaren Agiria Euskal Herriari

◆ ETak «mugarik gabeko su-eten orokorra» indarrean jartzea erabaki du eta hala jakinarazi du EGUNKARIARI bidalita-ko agirian. «Euskal Herriaren egoera, dauden aukerak eta subiranotasuneratz abiatzeko nahia» kontuan hartu ditu

ETak erabaki hau hartzean. «Mugarik gabeko eraso armatuen etenaldi orokor honek» irailaren 18an, bihar, izanen du hasiera. Urrats historiko honek «tamaina eta neurri bereko» erantzuna izango delako itxaropena agertu du ETak bere

agirian. Aldarrikapenarekin batera, alderdi, sindikatu, kultur bilgune, gizarte talde eta oro har euskal herritarrei dei egin die ETak fase berria subirotasunarena izan dadin beharrezko konpromezuak hartu eta urratsak emateko.

# ETak mugarik gabeko su-etena indarrean jarriko du bihar

## Euskadi Ta Askatasunaren Agiria Euskal Herriari

Euskadi Ta Askatasunak, agiri honen bidez gure herriak bizi duen egoera eta une historikoari buruz egiten duen irakurketa eta ondorioz hartu duen erabakiaren berri helarazi nahi dio euskal gizaritari.

Bi hamarkada luzeren ondoren, berriro ere, Euskal Herrian independentziaren bidean urrats erabakiorra emateko aukera zabalik dugu. Duela hogeitau urte, «transizio» garai horietan, bizi izandako urte korapilatsuetan izan genuen aukeraren parekoa dugulakoan gaude. Baina oraingoan, aurrean dugun fase politikoa subiranotasunarena izatea erdietsi behar dugu. Garai hartan galdutako aukera oraingoa egi bihurtuz.

ETak esperantzaz beterik ekiten dio fase politikoa berri honi. Esperantzaz beterik, batez ere, garai hartan egindako erruek irakaspen ederra izango direlakoan bait gaude; eta esperantzaz beterik ere, orduetik hona metatutako lan, esperientzia eta indarrek fase politikoa berri hau arrakastatsua izateko aski berme ematen digula uste baitugu.

Aukera berri bat izateak, eta aukera horri esperantzaz beterik ekiteak ez gaitu ordea itsutu behar. Ez ditugu begiak itsi behar Euskal Herriak pairatzen duen egoeraren aurrean. Larria bait da gure herriak bizi duen egoera edonondik begiratuta ere. Bi Estatu indartsuren menpeko gara euskal herritarrok. Estatu bi horiek beren tresneria guztia, armatua, politikoa, ekonomikoa eta kulturala erabiltzen aritu dira Euskal Herriak etorkizunean herri aske izateko zituen baliabideak xehatzeko. Espainia eta Frantziaren ekimen setasun horrek zauri gordinak utzi ditu, beraz. Eta ez da erraza izango gure askatasuna eskuratzea. Auzoko izanik ere etsaitzat eta menpean hartzeko gizartertze hartzen gaituzten Estatuaren aldetik modu baketsuan Euskal Herriaren hitza errespetatzeko borondate keinu txikiena ere ez baita ageri.

Eraso eta zailtasun guztien artetik, bizitzeko esperantzak ematen duen borrokaren grinak gidaturik Euskal Herria XXI. mendearen atarira iritsi da. Ez herri aske gisa, baina bai, herri aske izateko aukera guztiak zabalik ditugula. Orainarrean geureari eusteko adinakoak bagarela erakutsi diogu munduari. Aurrerantzean geure etxea geuk hautatu moduz atontzeko aski behar, eskubide, borondate eta abilezia dugula erakutsi diezagun bada.

Aurrerago jo aitzin garrantzitsu oso deritzogu bi galdera pausatu eta horiek erantzuteari. Batek, nolatan iritsi den Euskal Herria 2000. urtearen atarira herri aske izateko aukera zabalik duela?; eta bestetik, zergatik ez den Euskal Herria oraino aske 2000. urtearen atarian?

Lehen galderak erantzun azkarra du. Azkarra



■ «Euskal gizartean soluziobide politikoa eta praktikoa eman beharko dituen bake-hitzartu baten gose eta egarria nagusitu da».

■ «Bi hamarkada luzeren ondoren, berriro ere, Euskal Herrian independentziaren bidean urrats erabakiorra emateko aukera zabalik dugu».

eta ohorez beterikoa gainera. Historia zaharreko euskal herritarren ahalegina ezertarako baztertu edota ahantzi barik, azken hogeitau urteoi dagokionez, milaka eta milaka euskal gizon eta emakume adoretuen eskeintza bihotzabalari esker gaude gure askatasuna erdiesteko atari berri baten aurrean.

Egia horrek presentzia bizi bizia du Euskadi Ta Askatasuna erakundearen ari garen burkideen bihotz eta burutan. Etsaien eraso armatuen ondorioz hildako burkide eta herritarren eskeintzarik gabe; kaserna eta komisaldegitan tortura latza eta umilazio etengabea jasan duten burkide eta herritarren sufrimendua gabe; eguneroko lan isil, arriskutsu eta konprometituetan gure kultura, hizkuntza, ekonomia-sarea, gizarte ohituren alde, indarrean dauden lege espainiar zein frantses atzerritarrei muzin eginez eta ohikeriaren hatzaparrei ihes eginez aritu diren eta ari diren burkide eta herritarren ahaleginik gabe; milaka eta milaka urtetako espetxe zigorraren zama bizkarrean dutela duintasun erabateko gartzeletako ziegetatik Euskal Herriaren etorkizunerako bidea argitzen aritu diren eta ari diren burkide eta herritar apaian eusteko ahalmenik gabe ere ez geundeke gauden lekuan.

Herritar guzti horientzat doa gure ohorezko oroimena une hauetan, etorkizun aske baten bidea isten zuen ate erraldoiaren zerrail ugariak etengabe irekitzen aritu direlako bait gaude berriro ere une esperantzagarri eta historiko baten aurrean. Horiek guztiak beren biziko konpromezurik hartu ez balute aspaldi egin zuen eta Euskal Herriarenak!

Bigarren galderak, aldiz, erantzun ozipindua behar du. Orain bizi dugunaren gisako une garrantzitsuetan norberak zer egin duen azterzea eskatzen baitu. Urte guzti hauetan aurreratu duguna ez ezik, aurreratu genezakeena ere

kontutan hartzea. Ezker abertzaleak duela hogeitau urte proposatu bideak, hau da euskal demokrazian aurrera egitearenak ez zuen adostasunik lortu. Eta ondorioz bi bidetan barrena zatikatu zen abertzaleon mundua: Espainiak inposatu zigun legedia «de facto» onartzetik abiatzen zena bata; eta inposaketa horri aurre egiteko Herri batek bere burua defendatzeko dituen tresna guztiak zilegitzat joz Espainiarekiko haustura eskatzen zuen bidea bestea.

Lehen bide horrek, autonomismo konstituzionalarenak, Francoren diktadurapetik ateratzearen zegoen Euskal Herriaren barne-zatiketa areagotzea ekarri du. Lehendik bi Estaturen menpe bageunden, geroztik, zatiketa autonomikoa gehitu zaigu. Eta eskuratu ditugun guztiak borroken ondorioz edota borrokak apaltzeko amarru gisa eskuratu ditugu. Lehen bide horrek gero eta «espainiarago» eta «frantziarago» eramandu Euskal Herria, Madril eta Parisa begira bizitzera kondenatuz. Geuk geure kabuz erabaki ordez atzerritarren baimena eskatzera behartu gaitu, eta geurean uzku ziren espainiarzaleak harrotzera. Euskal Herrian bertan barne-muga berriak sendotzera, euskal herritarrek beraien artean aldenaraziz, eta batzuz, zipaioen kasua aipatzearen, espainiar legedia onartuz eta babestuz beste herritar batzuren aurka aritzera eramanez.

Bigarren bidean abiatu ginenok geure ezintasun eta erru guztien gaintetik, Euskal Herri batu, aske eta euskaldun baten proiektora mantendu dugu bizirik, herritarren lanerako eta sortzerako ahalmenean konfidantza eginez, zatiketa instituzional eta estatuzkoak gainditzearen alde lan egin dugu, gure Herrira justizian eta eskubide demokratikotan oinarritutako bakea ekartzearen. Horrela, Euskal Herrian berezko gizarte proiektu bat sortzearen aldeko apostuak bere fruituak eman ditu. Bat oraintxe aipatu nahi duguna, autonomismo zatikatzaile horren antzutasun eta itsutasuna erakustearena. Eta ez da gutxi, autonomismoa Euskal Herriaren hilobia izan zedin Espainiak egin duen ahalegin erraldoia kontutan hartuz.

Autonomismo zatikatzailearen bidean gogotsu eta borondate onez abiatu zirenak oharatu berri dira mailaz maila igo behar zen mailadi horretan ez gora ez behera geratzeaz gainera, mailadi horrek Euskal Herriaren askatasunera ez darabala. Euskal Herriaren aldeko apostu erabateko egin dugunok, gure aldetik, prest gaude iragan hurbil hori gainditu eta ilusioz beterik proiektu berri batetan elkarrekin aurrera egiteko.

• Zergatik gaude aukera berri baten aurrean?

Hemen dugu bada Euskal Herria bere etorkizunaren atarian berriro ere. Baina ez ote da borondatekeria hutsa egoera «berri» baten atarian gaudela uste izatea? Euskadi Ta Askatasunak, bizi